



**ALDEZ AURREKO KONTSULTA, 2019KO EKITALDIAN EGINGO DIREN
ESKUALDAKETEI PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN
ETA SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAN APLIKATU BEHARREKO
EGUNERATZE KOEFIZIENTEAK ONESTEKO DEKRETU PROIEKTUAZ**

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituenak, I. eranskinen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, 2019ko ekitaldian egingo diren eskualdaketei pertsona fisikoek errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak ezarri behar dituen etorkizuneko xedapenen eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, azaroaren 30a arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.



AURREKARIAK

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, xedatzen duenaren arabera, kostu bidezko edo kostu gabeko eskualdaketetan, dagozkien ondare elementuen eskuratze balioa eguneratu egingo da erregelamendu bidez onartzen diren koefizienteak aplikatuz, batez ere haien eskuratze egunetik kontsumoko prezioen indizeak izandako bilakaera eta haien eskualdatze ekitaldirako aurretiaz jotzen dena kontuan hartuz.

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, xedatutakoaren arabera, ibilgetu materialaren, ukiezinaren edo higiezinetakako inbertsioen ondare elementuak eskualdatzean lortutako errenta positiboak zerga oinarrian integratzeko, ondoko hau kendu behar da, errenta horien mugaraino: eskualdatutako elementuari buruz legez baimendutako azken eguneratzeetik edo elementu hori eskuratu zen egunetik, geroagokoa bada, izandako monetaren balio galeraren zenbatekoa, erregela batzuen arabera kalkulatuta. Horietako lehenengoak dio eskualdatutako ondare elementuen eskuratze prezioa edo ekoizpen kostua eta haiei dagozkien amortizazio metatuak erregelamendu bidez ezartzen diren koefizienteek biderkatuko direla.



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Aipatutako kasuetan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak ezartzea.
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Arau aginduak bete behar dira.
XEDEAK	Aipatutako zenbatekoak eguneratzea.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Ez dago egokiagoa den bestelako arautze irtenbiderik.